



❖ BERTSOLARITZA Xabier Legarreta finalerdietara

Nafarroako Txapelketa aste-buru honetan hasi da, eta atzo Xabier Legarreta arano-arrak saio polita egin zuen Sunbillan, kanporaketako saioan. Legarretak alde dezentearekin irabazi zuen kanporaketako saioa, eta finalerdietan kantatuko du, Iruritan, otsailaren 27an, 17:30etan. ||

❖ HITZALDIA Erraustegiari buruzko hitzaldia, bihar Biterin

Hernaniko Zero Zabor taldeak antolatuta, Peio Lozanok hitzaldia emango du bihar Biteri kultur etxean. *Zer jakin nahiko zenuke erraustegiaren inguruan?* jarri diote izena hitzaldiari, eta jendeak aukera izango du Peio Lozanori erraustegiaren inguruan galderak egiteko. Aldez aurretik zerbait galde-tu nahi duenak, aukera dauka helbide honetan: zerozabor@gmail.com. ||

❖ HERRI BATZARRA Herri Batzarra, ostegunean

Datorren ostegunean, urtarrilak 28, Herri Batzarra egingo du Hernaniko Ezker Abertzaleak. Ondorioak aterako dira *Fase politiko eta Ezker Abertzalearen Estrategiaren argipena* izeneko txostenaren inguruan eztabaidatu denari buruz. ||

❖ KALE MOZKETA Nafar kalea itxita egongo da gaurtik ostiralera bitarte

Nafar kalea itxita egongo da aste honetan, gaurtik ostiralera bitartean. Aitor zineak zireneko horretan obrak egiten ari direlako itxiko dute Nafar kalea bost egunetan. ||

◆ ERRUGBIA - EUSKADIKO URREZKO KOPA

Hernani sailkatu da bigarren fasera atzo Durangori 24-5 irabazita

Hernaniarrek lehendabiziko zatian atera zuten jokurik eta alderik haundiena. Urrezko Koparen bigarren fasean hiru partidu jokatuko ditu; lehendabizikoa Gernikan, otsailaren 13an.

URREZKO Koparen bigarren fasera sailkatu da Hernani, atzo Durangori 24-5 irabazita. Lehendabiziko fasea ohorezko B mailakoek jokatuko dute, eta atzokoa zen finala. Orain, ohorezko A mailako Gernika, Bera Bera eta Ordizia dauzkate zain, bigarren fasea jokatzeko.

Lehenengo zatian erraz, bigarren lanak

Hernaniarrek nagusi izan ziren atzoko partiduan, baina bigarren zatian uste baino gehiago sufritu behar izan zuten, batez ere azken minutuetan. 3 entsegu egin zituen Hernanik lehendabiziko zatian, eta baloia ederki mugitu zuten. 19-5 joan ziren deskantsora, eta bigarren zatian indar berarekin hasi ziren. Laugarren entsegu ere egin zuten, 24-5, eta hortik aurrera etorri ziren lanak.

Durangok uste baino fisi-



Lokatz handia bildu zen Landaren, eta jokalariek berebiziko ahalegina egin behar izan zuten.

ko hobia erakutsi zuen. Partidu bukaera aldera behera egingo zutela uste bazen ere, eurak nagusitu ziren zelaian, lokatzak erabat hartutako zelaian. Hala ere, larritu beharrik ez zen izan atzo Landaren, bizkaitarrek

ez baitzuten lortu indar hori aprobetxatzerik. Lehia polita, eta kiroltasun ederreko partidua izan zen, atzokoa.

Alde txarra: lesio bat izan zuen Hernanik. Jokin Esnalek min hartu zuen, eta baja luzea izango dela dirudi.

Hurrengo partiduak
Gernikaren kontra jokatuko du Hernanik lehendabiziko partidua, bigarren fasean. Otsailaren 13an izango da, larunbatarekin, eta hurrengoak martxoaren 13-14an eta 20-21ean (Landaren). ||

Danborrak dantzan, Inmakulada ikastetxean.

Donostia Eguna ingurueta ere zabaltzen da, eta iritsi zen Hernanira ere. Inmakulada ikastetxeak danborrada antolatu zuen, eta euria goian behean ari bazuen ere, ateri zenean aprobetxatu zuten momentua eta patiora atera ziren. Txiki eta haundi hor aritu ziren etnik gabe dabor hots batean inguratutakoak alaitzen. ||



DORRONSORO
OKINDEGIA

Orain bi tokitan aurkituko gaituzu:
⇒ **Lizeaga 4an.**
Ogia eta bolleria aukeran.
Ordutegia 07:00-14:00/17:00-21:00

⇒ **Akarregi poligonoan,** obradore nagusia, denda eta kafetegia.
Ordutegia: 05:30-13:30/16:00-19:30

Argitarapen honen laguntzaile:

**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Kera

DENA
- % **50**

Merkealdia

☎ 943 33 65 62
Gudarien enparantza, 7

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
● **FARMAZIAK** ● Egunez: **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● **Gauez**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Giroa hozten hasiko du gaur. Xiri-miria egingo du goiz partean, eta arratsaldean ateri izango dugu eta hotz. Temperatura minimoak 5° eta maximoak 9°.

BIHAR Hotza nagusituko da bihar. Jasa handirik ez dugu izango baina egiten duena elurra egingo du 300 m-tik gora. Haizea ipar ekialdetik. Min.5° / Max.9° (euskaime)

TRIALSINA - GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Benito Ros irabazle, beste behin

Munduko txapelduna, Jon Areitio eta Iker Gonzalezen aurretik geratu zen. Hernaniarrak ere izan ziren atzo Fagollagan, lehiari eta ikusten.

BENITO Ros da munduko txapelduna, eta beste behin ere erakutsi zuen zergatia. Atzo Fagollagako zirkuitoan ez zuen berdinek izan, eta berari begiratu zuten parte hartzaile eta ikusleek. Inguratu zitzaiona, gazte bat: Jon Areitio hondarbitarra. Maila polita eman zuen berak ere. Eta hirugarrena Iker Gonzalez errenteriarra.



Benito Ros Abarzuzakoak erraz irabazi zuen, atzo ere.

8garren geratu zen. Eta Ane Gil benjaminetan atera zen, lehiarik gabeko kategorian.

Gainerako sarituak
Juniorretan Andoni Asenjok izan zen irabazle. Bigarren Gorka Susperregi, eta hirugarren Markel Uriarte. Infantiletan, Unai Zunzunegi izan zen onena. Bigarren Sergio Fernandez, eta hirugarren Josu Sanchez. Azkenik, alebinetan Aimar Etxeberriak irabazi zuen. Bigarren Gaizka Cuellar geratu zen eta hirugarren Jon Madina.

Txapelketak jarraitzen du
Gipuzkoako txapelketaren barruan, Fagollagako zen aurreneko frogak. Gainerako lau frogak jokatuko dira: Pasai Donibanen (*otsailak 7-Arrokandietan*), Oñatin (*otsailak 21-Arantzazu*), Urretxun (*martxoak 7-Santa Barbara*), eta Aretxabaletan (*martxoak 21*). ||

Parte hartzaile gehiago

Aurreko urteetan baino parte hartzaile gehiago izan ziren atzo. Guztira 36 izan ziren Fagollagako harkaitzetan lehiatu zirenak, eta kirol horren zailtasuna dela-eta, ez da normala izaten.

Tartean hernaniarrak ere izan ziren, atzo, animatu eta zirkuitua egin zutenak. Ruben Arenales juniorretan atera zen, eta 6garren postua lortu zuen. Jesus Franco infantiletan atera zen, eta

FUTBOLA - Emakumeen liga

Hernanik berdindu igoera faseko lehendabiziko partidua

Hernanik 2-2 berdindu zuen atzo, Eibar taldearen kontra, emakumezkoen ligako igoera fasean. Partidua oso parekatua izan zen. Hernaniarrak atzetik hasi zuten partidua, 1-0. Azkar lortu zuten berdinketa, eta 1-1 iritsi ziren deskansora. Bigarren zatia parekatua izan zen, eta minutu batean erabaki zen guztia. Eibarrek 2-1eko sartu; hernaniarrak erditik atera, eta jokaldi horretan sartu zuten 2-2koa. Igoera fasea oraintxe hasi dute, eta 8 talde ari dira lehiari. ||

SASKIBALDIA

Teklan Hernanik galdu egin zuen atzo Santo Tomasen kontra

Teklan Hernanik baja kopurua nabarmendu egin zuen larunbatean, eta galdu egin zuen 45-54, Santo Tomas Lizeoaren kontra. Hala ere, partiduari azken laudenera arte eutsi zioten hernaniarrak, baina nekeak bere lana egin zuen. Hernaniarrak 7 jokalaririk bakarrik zituzten partidua osoa jokatzeko.

Jubenilek ere galdu egin zuten Easo taldearen kontra, 30-67; eta kadeteek berriz, egurra eman zioten Inter Mons taldeari, 72-27. ||

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		SASKIBALDIA	
Erregional Ohorezko Maila	Tolosa-Hernani	2-1	Seniorrak
Emakumezkoen Liga	Eibar-Hernani	2-2	Jubenilak
Erregional. 1maila	Ordizia-Hernani	3-0	Kadeteak
Jubenila. Liga nazionala.	Hernani-Real Sociedad	0-5	ERRUGBIA
Jubenila. Lehenengo maila.	Hernani-Eibartarrak	2-0	Urrezko Kopa
Jubenila. Lehenengo maila.	Vasconia-Hernani	2-0	Seniorrak
Jubenila. Lehenengo maila.	Hernani-Tanger-San Patricio	0-2	Jubenilak (lagunart)
Kadeteak. Ohorezko maila	Hernani-Billabona	0-1	Kadeteak (lagunart)
Kadeteak. Lehenengo maila.	Pasajes-Hernani	3-1	ARETO FUTBOLA
Kadeteak. F.11	Luberrri-Hernani	0-1	1. maila
Infantilak. Txapelaldunen fasea	Hernani-Touring	4-0	Garetxe Lazkao-Yone Boutique
Infantil Txiki	Hernani-Ordizia	1-3	

ARETO FUTBOLA

Garaipen zaila, eta oso garrantzitsua

Yone Boutique taldeak azken segunduetan irabazi zuen atzo, Garetxe Lazkao taldearen kontra, 4-5. Hernaniarrak 0-1 irabazten jarri ziren partidu hasieran, eta Lazkaok presio gogorra egin zien hortik aurrera. 1-1 enpate jarri ziren, eta lehenengo zatia horrela bukatuko zela ematen bazuen ere, penalti bikoitz batean 1-2 aurreratu ziren hernaniarrak. Bigarren zati hasiera ahaztekoa izan zen. 5 minutuan bi gol sartu zituen etxeko taldeak eta 3-2 aurretik jarri ziren. 3-3 berdindu, berriz 4-3 atzetik, azken minutuan 4-4... eta azken segunduetan sartu zuten hernaniarrak 4-5koa. Arnas pixka bat hartu dute hernaniarrak, baina hurrengo ere irabazi beharra daukate. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† IÑAKI ARREGI GURRUTXAGA

JAUNA

Herenegun hil zen, 82 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

- Goian Bego -

Emaztea: Pepi Kortajarena; seme-alabak: Koro eta Andoni Aduriz; bilobak: Ander eta Iker; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezte **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko urtarrilaren 25ean

Helbidea: Elizatxo 17 - 3. esk.

OHARRAK: Gorputza VASCONGADA EHORKETA TANATORIOAN (Orkologia kalea) egongo da eguerdiko 12:15ak arte.



† IÑAKI ARREGI GURRUTXAGA

JAUNA

GURE BIHOTZAREN
ERDIAN ZAUDE,
ORAIN ETA SEKULAKO

Zure bilobak: Ander eta Iker

Hernanin, 2010eko urtarrilaren 25ean



Atez ateko zalantzak argitzen

Poda txikitzeko makinari egongo da?

Bai.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



IRAGARKI MERKEAK

Pianoa salgai. Yamaha U1F modeloa, bigarren eskukoak. Ongi zaindua. 2.500 euro.

Deitu: 629 763 041.

Hernanin (Tilos-etan) Duplex-a salgai estrenatzeko (eraikuntza berria). 130m2, 3 logela, 2 komun, sukalde (osagai guztiekin) eta igogailua. 442.000€.

Deitu: 656 316 031.

Garaje itxia alokatzen da herri erdialdean. Deitu: 943 55 04 71 / 615 009 926.

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, **hilabeteko eskaintza: %20 aren deskontua 1. sesioan**, "Fotorejuvenecimiento", Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**